

# DANTZAKO ESPEZIALITATEA

## **Ibilbidea: “Koreografia-berrikuntza arte- eta hezkuntza-testuinguruetan”**

Zentro honek dantza-ikasleei eskaintzen dien prestakuntzak dantza klasikoaren eta dantza garaikidearen tekniken, estiloen eta sormen-formen osagarritasuna biltzen du, eta, horri esker, aukera dago gaur egungo koreografia-mundura egokitu daitezkeen balio anitzeko interprete eta sortzaileak sortzeko.

Zentzu horretan, dantzaren goi-mailako irakaskuntzen ibilbideak, alde batetik, proposamen eszenikoen kalitate artistikoa aberastuko duen estiloarteko ikerkuntzarako espazioa sortu nahi du, eta, bestetik, ikasleei baliabideak eman nahi dizkie, proposamen horiek arte- eta hezkuntza-testuinguruetara eramateko.

Hona hemen ibilbidea osatzen duten hautazko ikasgaiak:

- **Espazio esperimentalak**
- **Punten teknika ikertzea**
- **Hezkuntza-dantza**
- **Koreografia-berrikuntza eta haren komunikazioa**

# Hautazko irakasgaien deskribapena

## 1.Espazio esperimetala

### **a. Irakasgaiaren justifikazioa:**

Dantzako Koreografia eta Interpretazioa espezialitatearen curriculuma irakasgai multzo batek osatzen du. Horietako askok sormen-ariketen bidez emandako baliabideak gauzatzera bideratutako atal bat dute. Ondorioz, sormen-ariketen ikuspegia irakasgaia ematen duen irakasleak zuzentzen du, irakasgai zehatz baten testuinguruaren barruan. Ikasleek esperimentazio-espazio libreagoa eta irekiagoa edukitzeko beharra dutela egiaztatu dugu. Espazio horren bidez, beren intereseko eremua, estetika eta metodologia esperimentatu behar dituzte; hori bai, interes horiekiko ahalik eta gertukoena den tutore baten laguntzaz.

### **b. Izaera teorikoa edo praktikoa**

Teorikoa eta praktikoa

### **c. Edukiak**

Irakasgaiaren edukia ikasleak aukeratzen duenez, atal honetan egokiago da jarraipen-metodologiari buruz hitz egitea: irakasgaiari ekiteko, taldeko bi bilera egiten dira, eta, horien bidez, zenbait baliabide ematen dira, ikasleak bere esperimentazioaren gaia teorikoki zehazteko, sakontzeko eta egiaztatzeko. Esperimentazio-proiektuko zer lagin mota aurkeztu (prozesuaren amaieran) erabakitzeko baliabideak ere partekatuko dira, aurkezpena egiteko eguna iristean esperimentazio hori dagoen unearikiko zorrotzak eta errespetutsuak izateko xedez. Taldeko saioen ondoren, ikasle bakoitza banakako edo taldeko prozesu batean murgilduko da, haiek nahi bezala. Prozesu horretan, tutoreak lagunduko du, gutxienez hiru tutoretza-saio eginez azken aurkezpenaren aurretik; horiez gain, ikusleen aurrean amaierako erakustaldia egingo da (barneko edo kanpoko ikusleak izango diren erabaki behar da), eta, horren ostean, tutoretza-saio bateratu bat egingo da.

### **d. Ebaluazio-irizpideak:**

- Banakako eta taldeko lan-irizpideak aplikatzea, elkarrizketa artistiko batean defenda daitekeen hizkuntza propioa eta integratua garatzeko.
- Gaitasuna lortzea proposamen kontzeptuala zehazteko eta sakontzeko.
- Erabilitako estetiken kontzientzia eta koherentzia adieraztea.
- Egin nahi den esperimentazio-proiektuari egokitutako lan-metodologia bilatzea.

- Sormen-lanerako autonomia sendotzea.
- Feedback-ak integratzeko gaitasuna lortzea.
- Ikusleei erakutsi beharreko esperimentazio-proiektuen aurkezpenak produktu artistiko baten aurkezpenak ez bezalakoak direla eta izan behar direla ulertzea.
- Aurkezpena ikusleen aurrean eta zorrotz egitea.

## **2. Punten teknika ikertzea**

### **a. Irakasgaiaren justifikazioa:**

Punta-lanari ekin nahi zaio oinarriak finkatzeko, kontzeptuak hedatzeko eta dantza klasikoaren teknika beste ikuspegi batetik sakontzeko. Punta-lanak abiapuntu bat, prozesu bat, helburu batzuk behar ditu eta, oro har, punta erdiaren teknika ez den teknika bat behar du, maila guztietan osagarria eta aberasgarria dena. Emaitzak gorputzaren kontrolean, indarrean eta kontzientzian nabaritzen dira.

Eszena klasikoko dantzak teknika horri eutsi dio 1800. urtearen hasieratik gaur egunera arte. Aukera sorta handia eskainiko da, teknika hori asko landu duten ikasleek zein lehenbizikoz ekiten dioten ikasleek ikerkuntza horretan ikas dezaten.

Bukaeran proiektu pertsonal bat planteatuko da, eta erabateko askatasuna izango dute ikasleek koreografia-konposizio klasikoa gaur egungo ikuspegi batetik birsortzeko. Osaerari, adierazpenari zein gaiei dagokionez, dantza klasikoa iraganean ainguratuta dagoela dioen kritika orokorraren eztabaidari helduko zaio, eta baliabide berriak bilatuko dira dantza klasikoa berritzeko eta gaur egungo gizartera moldatzeko. Ikerkuntza bi alorretan egingo da: errepertorio klasikoaren ikuspegi berriak eta sorkuntza-lan berriak.

### **b. Izaera teorikoa edo praktikoa:**

Teorikoa eta praktikoa

### **c. Edukiak:**

1. Puntako zapatilaren sarrera historikoa:
  - a. Puntako zapatilen sorrera testuinguruan jartzea
  - b. Dantza klasikoaren teknikaren ibilbidea eta bilakaera.
  - c. Zapatila motak eta oin mota guztietara moldatzea
  - d. Zapatilak banaka prestatzea.
2. Metodologia
  - a. Aurreko baldintzak, aurreko entrenamendua, baldintzak eta entrenamendua.

- b. Oinarrizko behar fisikoak punta-lanerako.
  - c. Lanaren aurrerapena aztertzearen garrantzia.
  - d. Maila ezberdineko eskola baten metodologia.
  - e. Musikaltasun espezifikoak punta-lanerako.
3. Oinarrizko kontzeptuak
    - a. Oina kokatzea
    - b. Lerrokatzea
    - c. Pisu banatzea
    - d. Beheratzeak kontrolatzea
    - e. Ardatz-aldaketak
  4. Punta-mugimenduko eremua
  5. Lesio-arriskuak eta prebentzioa
  6. Neskentzako eta mutilentzako puntak
  7. Binako pausoa
  8. Dantza klasikoa berritzera bideratutako ibilbideak
    - a. Nazioarteko prentsari begirada.
    - b. Dantza-kritiko handiak
  9. Dantza klasikoaren benetako ikusleak eta ikusle izan daitezkeenak.
  10. Pantomima eta dantza klasikoaren benetakoa interpretazioa.
  11. Mitoak eta errealitatea: elitismoa, iraganean ainguratzea...
  12. Ikerketa pertsonaleko proiektua.
- d. **Ebaluazio-irizpideak:**
1. Punta-laneko oinarrizko teknika zehaztasunez ulertzea eta aplikatzea.
  2. Gorputzaren kontzientzia eta kontrola lortzea eta handitzea.
  3. Lerrokatzea, kokapena, indarra eta malgutasuna zuzentzea eta hobetzea.
  4. Lan pertsonalaren edo etorkizuneko ikasleen aurrerapenean kontzientzia eta koherentzia agertzea.
  5. Dantza klasikoaren ibilbidea ulertzea zenbait testuingurutan.
  6. Dantza klasikoaren inguruko kritikei eta mitoei aurre egitea.
  7. Gaur eguneko dantza klasikoaren egoera birpentsatzea eta diskurtso propioa sortzea.
  8. Sakontzeko eta ikertzeko aukera ematen duen autonomia sendotzea.

9. Amaierako proiektua egitea.

### **3. Hezkuntza dantza**

#### **a. Irakasgaiaren justifikazioa:**

Hezkuntza-dantzaz ari garenean, dantza hezkuntza zerbitzura dagoela diogu, hezkuntza-ekintzarako baliabide gisa ari gara dantzaz. Eta, hezkuntza-ekintzaz ari garenean, ulertzen dugu ikaslearen nortasuna garatzea dela edozein hezkuntza-prozesuren (ez prozesu instruktiboen) azken xedea; dantzarako nortasuna, nortasun artistikoa eta nortasun orokorra garatzea.

Hezkuntza-dantza ezagutza- eta adierazpen-modutzat hartzen dugu, pertsonei behar emozionalak, kognitiboak, sozialak, afektiboak eta sormenekoak ematen dizkiena; eta guk diogu dantza egiteak nortasuna garatzeari ikuspegi oso batetik lagun diezaiokeela.

Diziplina anitzeko ikuspegitik lan egiten dugu, eta beste arte batzuk erabiltzen ditugu, hala nola musika edo arte plastikoak. Horrela, kanal sentitiboak irekitzea indartzen dugu eta sormen-, imajinazio- eta adierazpen-potentziala hedatzen dugu. Musikako parametroekiko erlazioa, musikaren izaerarekikoa, funtsezko oinarri bat da lan honetan. Uste dugunez, ikasleei gorputz-erritmoa sentitzen laguntzea funtsezkoa da, haren bitartez musikaren zentzu egokia lor dezaten. Halaber, musika barruan sartzen da eta mugimenduak eta jarrerak inspiratu eta biziarazten ditu, eta ikasleei esperimendatzeko eta gozatzeko aukera handia ematen die. Gainera, haien adierazpen- eta komunikazio-gaitasunak handitzen ditu.

#### **b. Izaera teorikoa edo praktikoa:**

Teorikoa eta praktikoa

#### **c. Edukiak**

Dantza-irakasteko eta profesionalak ez diren testuinguruetan dantza egiteko behar diren alderdi metodologikoak eta didaktikoak landuko dira.

1. gaia: *Hezkuntza-dantza* kontzeptura hurbiltzea praktikaren eta teoriaren bidez.
2. gaia: Sormen-dantza-gorputz espresioa 6 urtetik 12 urtera bitarteko haurrentzat. Orff metodologiara hurbiltzea praktikoki eta teorikoki.
3. gaia: Musika eta mugimendua 2 urtetik 5 urtera bitarteko haurrentzat. Gordon metodologiara hurbiltzea.
4. gaia: Diziplinartekotasuna I. Musikaren eta dantzaren jatorri komuna.
5. gaia: Diziplinartekotasuna II. Dantzaren eta arte plastikoen arteko elementu komunak.

6. gaia: Nerabe taldeentzako saioak.
7. gaia: Dantza tradizionalak eta munduko dantzak haurrentzat.
8. gaia: Helduentzako dantza tradizionalak.
9. gaia: Dantza historikoetara hurbiltzea talde ezberdinentzat.

#### **d. Ebaluazio-irizpideak:**

1. Hezkuntza-dantzari buruz ahozko, idatzizko edo ikusizko diskurtso propioa eratzeko, justifikatzeko eta azaltzeko gai izatea.
2. Printzipio psikopedagogiko orokorrak ezagutzea, ulertzea eta aplikatzea, dantzaren berariazko metodologiak eta didaktikak sakonki aztertuz.
3. Komunitatean pertsona eta talde espezifikoak integratzeko tresna garrantzitsu gisa dantzaren dimentsio artistiko eta soziala indartzen duten ezagutzak eta trebetasunak lortzea.
4. Interes estetiko eta xede komunikatiboa duten proposamen eszenikoak taldeka eratzea.
5. Norbere gain hartzea, hezkuntza-, irakasle- eta dinamizatzaile- funtzioa etengabe hobetu behar dela.
6. Inprobisatzeko eta konposatzeko teknikak ezagutzea, zeregin pedagogikoan eta sorkuntza-lan berriak eta hainbat eratako proiektuak sortzean aplikatu daitezkeenak.

### **4. Koreografia berrikuntza eta haren komunikazioa**

#### **a. Irakasgaiaren justifikazioa:**

Alde batetik, gaur egungo koreografia-sorkuntzek zailtasunak dituzte emanaldietako aretoak betetzeko. Bestetik, entseguak eta emanaldiak egiteaz gain, gero eta ohikoagoa da dantza-konpainiek beren ezagutza artistikoa komunikatzeko eta transmititzeko jarduerak egitea, ikusle berriak sentsibilizatzeko eta sortzeko eta profesionalak prestatzeko. Beraz, dantza-konpainietako kideek dagoeneko ez dute interpretatzen edo sortzen soilik: gonbidapena jasotzen dute maiz koreografia-tailerrak emateko, kongresuetan parte hartzeko, ikusleekin elkarrizketatzeko eta zenbait komunitatetarako dantzako prestakuntza-ikastaroetan parte hartzeko. Hortaz, dantzaren goi-mailako koreografia eta interpretazioaren espezialitatean, beharrezkoa da eszena-berrikuntzaren eta -ikeruntzaren komunikazioari buruzko prestakuntza espezifiko jasotzea, etorkizuneko profesionalek testuinguru ezberdinetan aukera izan dezaten beren koreografia-prozesuak eta -produktuak ikusle mota guztiei hurbiltzeko eta partekatzeko.

**b. Izaera teorikoa edo praktikoa:**

Teorikoa eta praktikoa

**c. Edukiak:**

1. Eszena-berrikuntza eta -ikerkuntza
2. Komunikazio-gaitasuna. Komunikazio eta entzute aktiboaren oztupoak.
3. Eszena-berrikuntzaren eta -ikerkuntzaren komunikazioa. Zenbait adibide.

**d. Ebaluazio-irizpideak:**

1. Eszena-berrikuntza eta -ikerkuntza eta gaitasun komunikatiboa kontzeptuak identifikatzea.
2. Koreografia-berrikuntzaren zenbait komunikazio eredu aztertzea.
3. Koreografia propio bat edo beste norbaiten koreografia bat komunikatzea komunitate jakin bati.